



emari ta zabal zazu
Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARKITEKTURA
GOI ESKOLA
TEKNIKOA
ESCUELA
TÉCNICA SUPERIOR
DE ARQUITECTURA



ARKITEKTURA MASTERRA

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Gaur egun, eta indarrean dagoen arau esparruaren baitan, arkitekto gaituek bakarrik idatzi, sinatu eta eraiki ditzakete arkitekturarekin eta hirigintzarekin lotutako proiektuen zati handi bat. UPV/EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoa da konpetentzia eta gaitasun profesional horiek lortzeko aukera ematen duen Arkitekturako Gaikuntza Masterra ezartzen duen ikastegi publiko bakarra.

Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleek ez ezik kanpokoek ere izango dute lekua bertan; izan ere, goi arkitekturako ikastegi publikoan egungo banaketa kontuan hartuta, bere eragin esparrua Nafarroa, Kantabria, Asturias, Errioxa, Gaztela eta Leongo zati batera eta Ipar Euskal Herrira ere hedatzen baita.

Gure ikastegiak arlo profesional honetan duen prestakuntza eta esperientzia zabala kontuan hartuta -hain zuzen ere, 1978tik ari baita goi mailako arkitektoak titulatzeko ondo ezagutzen dugu gure inguruan titulazio honetan dagoen eskaera. Beraz, Gaikuntza Master hau gizartean dagoen arkitekto gaituen eskaerari erantzuteko diseinatu eta dimentsionatu da.

SARTZEKO ESKAKIZUNAK

Arkitekturaren Oinarrietako Gradua edo sarbiderako baldintza den beste bat, kontuan hartuz EDU/2075/2010 Agindua, uztailearen 29koa.

IRTEERA PROFESIONALAK

Izaera gero eta diziplina anitzekoagoa duten arkitektura eta ingeniarietza bulegoetan, eraikingintza eta arkitektura/hirigintza diseinuaren munduarekin lotura duten arlo guztietan, alor pribatuan zein publikoan: obra berria, birgaitzea, interiorismoa, energia-eraginkortasuna, hirigintza planak, herritarren parte-hartze prozesuak, paisajismoa, eta abar. Parte-hartze aktiboa sormenarekin harremana duten arloetan, besteak beste, diseinu grafikoan, modan, eszenografian, bideo-jokoan 3D diseinua, erakusketa/ekitaldien muntaia eta antolaketa, eta abar. Irakaskuntza hainbat alorretan (batxilergotik unibertsitate arlora) lkerketa graduondoko ikastaroetan, doktoretza programetan, arkitektura, hirigintza, artea eta historiarekin zerikusia duten artikulua eta argitalpenekin. Masterrak arkitekto lanbide arautuan jarduteko gaikuntza ematen du.

OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:

Irakaskuntza mota:

Hizkuntza:

Gutxi gorabeherako prezioa:

Egutegia:

Arkitektura Goi Eskola Teknikoa (Donostia).

Eskolan bertakoa.

Gaztelania, euskara.

1.700-1.900 €

Urritik uztailean, goiz eta arratsalde.

IRAKASTORDUAK / IRAUPENA

60 ECTS / Ikasturte bat

Nahitaezko Gaiak 21 kreditu ECTS	Practicum 9 kreditu ECTS	Praktikak/ Ikerketa-lanak 30 kreditu ECTS	Guztira 60 kreditu ECTS
--	-----------------------------	---	----------------------------

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

Nahitaezkoak: euskara /gaztelania

- Practicum (9 ECTS)
- Proiektuaren garapena (12 ECTS)
- Garapen teknikoa (9 ECTS)
- Master Amaierako Lana (30 ECTS)

HARREMANETARAKO

Arduradunak:

Juan José Arrizabalaga Echeberria

e-maila: juanjose.arrizabalaga@ehu.es

Masterreko idazkaria:

Helbidea: Oñati Plaza, 2. 20018 Donostia

e-maila: masterarquitectura.etsass@ehu.es

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK ETA BABESLEAK

